

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Guk behar ditugun hornitzaile nagusia haien arropa zaharrak eta erabilerarik ez dutenak guri saltzeko kapazak diren pertsonak dira. Gureak bukatzen direnean berriak beharko ditugulako, baita pertsonalizatu behar ditugun arropak pertsonalizatzeko materiala behar izango dugu. Hau da, lantegiak edo dendak telak saltzen digutenak eta baita botoiak, kreailera... Baita haria saltzen digun bazkideren bat ondo etorriko litzaiguke. Correos enpresarekin edo DHL edo edozein paketeria enpresarekin bazkidetuko ginateke haiek guri eskariak mugitzeko.

Aipatutako hornitzaileak, guretzat oso garrantzitsuak dira gure ideia aurrera eraman ahal izateko. Haien laguntzarik gabe ezin izango dugulako gure proiektua aurrera eraman, haiek behar izango ditugun materialak saldu ahal digutelako eta horren bitartez arropak pertsonalizatuko ditugulako. Hau da, hornitzaile hauen laguntzarik gabe, ezin izango genituzke arropak pertsonalizatu. Beraz, gure ideia pikutara joango litzateke haiek direlako behar ditugun materialak pasatzen digutenak.

Gure proiektua hasterakoan, hornitzaileak aukeratuko ditugu eta haiekin hitz egingo genuke hitzarmen antzeko bat izateko. Horrela, hitzarmenarekin; adib: urte osoko eskaintza bat ematea eta prezio on batean. Honekin aurrezteko aukera izango dugu. Bestela, egunero hornitzaile batengan joan beharko ginateke eta beharrak erosi. Modu honetan, garestiago irtengo litzaiguke.

